SERIEAREN KODEA	198

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Polizia-atestatua	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Dokumentu horretan jasotzen dira poliziak delitu-egitate bat edo trafiko-istripu bat argitzeko, ikertzeko eta egiaztatzeko egiten dituen eginbideak, egitate edo istripu horren inguruabarrak zehazteko eta egileen, konplizeen edo estaltzaileen erantzukizun posiblea zehazteko, epailearen esku jartzeko.	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Elgoibarko Udala Arloa: Herritarren segurtasuna Saila: Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez: x

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Erakundea	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako	Amaierako
Udala	Polizia judiziala / polizia		

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpenaren data
Lege Organikoa	3/1979	Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua	1979/12/18	BOE, 306. zk.	1979/12/22
Legea	7/1985	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena	1985/04/02	BOE, 80. zk.	1985/04/03
ELD	781/1986	Toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duena	1986/04/18	BOE, 96. zk.	1986/04/22
Legea	4/1986	EAEko estatistikari buruzkoa	1986/04/23	EHAA, 105. zk.	1986/05/30
ED	2568/1986	Toki-erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren Erregelamendua onartzen duena	1986/11/28	BOE, 305. zk.	1986/12/22
Legea	12/1989	Funtzio Estatistiko Publikoari buruzkoa	1989/05/09	BOE, 112. zk.	1989/05/11

Lege organikoa	5/1992	Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzekoa	1992/10/29	BOE, 262. zk.	1992/10/31

Legea	30/1992	Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena	1992/11/26	BOE, 285. zk.	1992/11/27
Lege organiko	15/1999	Datu pertsonalak babestekoa	1999/12/13	BOE, 298. zk.	1999/12/14
Legea	57/2003	Tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa	2003/12/16	BOE, 301. zk.	2003/12/17
Legea	4/2005	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa	2005/02/18	EHAA, 42 zk.; BOE, 274. zk.	2005/03/02 ; 2011/11/14
Dekretua	308/2005	Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena	2005/10/18	EHAA, 218. zk.	2005/11/16
Legea	11/2007	Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa	2007/06/22	BOE, 150. zk.	2007/06/23
Legea	37/2007	Sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoa	2007/11/16	BOE, 276. zk.	2007/11/17
Dekretua	232/2007	Administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena	2007/12/18	EHAA, 22. zk.	2007/01/31
ED	1720/2007	Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen araudia onartzen duena	2007/12/21	BOE, 17. zk.	2007/01/19
ED	1671/2009	Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partzialki garatzen duena	2009/11/06	BOE, 278. zk.	2009/11/18
ED	2009/2009	1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua aldatzekoa	2009/12/23	BOE, 313. zk.	2009/12/29
Dekretua	21/2012	Administrazio elektronikoari buruzkoa	2012/02/21	EHAA, 50. zk.	2012/03/09
Legea	19/2013	Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa	2013/12/09	BOE, 295. zk.	2013/12/10
Legea	27/2013	Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa	2013/12/27	BOE, 312. zk.	2013/12/30
Legea	18/2015	Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzen duena	2015/07/09	BOE, 164. zk.	2015/07/10
Legea	39/2015	Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearena	2015/10/01	BOE, 236. zk.	2015/10/02
Legea	40/2015	Sektore publikoaren araubide juridikoarena	2015/10/01	BOE, 236. zk.	2015/10/02
Legea	2/2016	Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa	2016/04/07	EHAA, 70. zk.	2016/04/14
Errege Lege Dekretua	5/2018	Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak datuen babesaren arloan emandako araudira egokitzeko	2018/07/27	BOE, 183. zk.	2018/07/30
Lege Organikoa	3/2018	Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak	2018/12/05	BOE, 294. zk.	2018/12/06
Errege Dekretua	203/2021	Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena.	2021/03/30	BOE, 77. zk.	2021/03/31

1.3.2 Espezifikoa

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren	Argitalpenaren data
ED		Prozedura Kriminalaren Legea onartzekoa Azken eguneratzea: 2015/10/06	1882/09/14	BOE, 260. zk.	1882/09/17
ED		Zigor Kodea onartzekoa Azken eguneratzea: 2015/04/28	1928/09/08	Gaceta de Madrid 257. zk.	1928/09/13
Lege organikoa	6/1985	Botere Judizialarena	1985/07/01	BOE, 157. zk.	1985/07/02
Lege organikoa	2/1986	Segurtasun Indar eta Kidegoena	1986/03/13	BOE, 63. zk.	1986/03/14
ED	769/1987	Polizia judiziala arautzekoa	1987/06/19	BOE, 150. zk.	1987/06/24
Lege organikoa	1/1992	Herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa	1992/02/21	BOE, 46. zk.	1992/02/22
Legea	4/1992	Euskal Herriko Poliziari buruzkoa	1992/07/17	EHAA, 155. zk.	1992/08/11
Errege Dekretua	54/2002	Polizia judiziala arautzeko ekainaren 19ko 769/1987 ED aldatzen duena	2002/01/18	BOE, 25. zk.	2002/01/29
Legea	15/2012	Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa	2012/06/28	EHAA, 132. zk.	2012/07/06
Lege Organikoa	4/2015	Herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa	2015/03/30	BOE, 77. zk.	2015/03/31
Dekretua	57/2015	Tokiko polizia-koordinaziorako Batzordeen osaerari eta funtzionamendu-erregimenari buruzkoa	2015/05/05	EHAA, 85. zk.	2015/05/11
Dekretua	58/2015	Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituena	2015/05/05	EHAA, 85. zk.	2015/05/11
Dekretua	109/2016	Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroari buruzkoa (EPDPZ).	2016/07/12	EHAA, 136. zk.	2016/07/18
		Udaltzaingoaren araudia, udal bakoitzean			
		Jokoari, ikuskizunei, zirkulazioari, ingurumenari eta abarri buruzko arau sektorialak			

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarriak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	

2.1.7	Seriearen hasierako data	Euskadiko hiru hiriburuetan udaltzaingoa sortu zen urtea: 1844 (Bilbo), 1873 (Donostia), 1877 (Gasteiz)
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	Espedientea osatzen duten dokumentuak

Honelako dokumentuak topatuko ditugu atestatuan:
- Ikerketa- eta izapide-eginbideak: egitateak ikertzeko egiten dira.
- Aktak: horietan esku-hartze batetik lortutako emaitzak jasotzen dira. Adibidez, atxiloketa-akta, etxebizitzan sartu eta miatzearen akta, deklarazio-akta. Ondorio juridikoak sortzeko gaitasuna dute.
- Deklarazioak: pertsona bati deklarazioa hartzeko erabiltzen dira. Nori zuzentzen zaizkion, honela deituko zaie:
    - Adierazpenak: atxilotuei edo inkulpatuei.
    - Agerraldiak: lekukoei, perituei edo salatzaileei, eta atestatuan parte hartu duten poliziei.
    - Miaketak: zigor-arloko adingabeei.
- Txostenak: alderdiren baten berri emateko edo agerian jartzeko. Garrantzitsuenak gertaeren bilakaerari edo horiek eragin zituzten kausei buruzko ondorioak dira.

Delituengatik instruitutako atestatua:
- Azala.
- Aurkibidea
- Udaltzaingoaren bulegoetan egindako salaketaren akta
- Larrialdietako parte judiziala
- Ekintzak jakinarazteko eginbidea Udaltzaingoaren bulegoetan
- Lekukoaren agerraldia Udaltzaingoaren bulegoetan
- Salatuaren filiazio-eginbidea
- Gertakarien deskribapenaren eginbidea
- Eginbideak amaitzeko eta epaitegira bidaltzeko eginbidea, hala badagokio

Zirkulazio-istripuagatik bideratutako atestatua:
- Azala.
- Aurkibidea
- Inplikatutako ibilgailuak identifikatzeko eginbideak
- Ibilgailuetako gidariak identifikatzeko eginbideak
- Ibilgailuetako gidarien istripuagatiko deklarazioaren akta
-Ibilgailuen gidariei prozedura-baldintzei buruzko informazioa emateko eginbideak
- Osasun-txostenak
- Bidearen ezaugarriei buruzko txostena
- Gertakarien deskribapenaren eginbidea
- Bilakaerari buruzko eta kausa posibleei buruzko eginbidea
- Argazki-txostena
- Krokisa
- Eginbideak amaitzeko eta epaitegira bidaltzeko eginbidea, hala badagokio

2.2.2	Administrazio-prozedura

Atestatu izeneko dokumentuan jasotzen dira poliziak delitu-egitate bat edo trafiko-istripu bat argitzeko, ikertzeko eta egiaztatzeko egiten dituen eginbideak, egitate edo istripu horren inguruabarrak zehazteko eta egileen, konplizeen edo estaltzaileen erantzukizun posiblea zehazteko, epailearen esku jartzeko.

Polizia-agenteek idatziko dituzte, eta polizia judizial gisa jardungo dute esleitutako kasua epaitegi batean ikusi behar denean; agente horietako batek instruktore gisa jardungo du, egin beharreko jarduketak aginduz, eta besteak idazkari gisa, horietan gertatzen dena ziurtatuz.

Ofizioko papera edo paper arrunt zigilatua erabili ahal izango da. Azal bat izango du, eta hor datu nagusiak jasoko dira: instruktorea eta idazkaria (agentearen kidegoa, unitatea eta zenbaki profesionala), atestatu-zenbakia, instrukzio-arrazoia, atxilotuen filiazioa, zein agintariri ematen zaion eta zigilua.

Atestatuaren orriek zenbaki korrelatiboak izango dituzte, eta guztiak zigilatuta eta sinatuta egongo dira. Erraz irakurtzeko bitarteko mekanikoen bidez idatziko dira, ahal dela alde batetik, eta ezkerreko marjina zabala utziko da josteko edo grapatzeko. Ez da zuriunerik utziko, ondoren beste zerbait gehitzeko aukerarik izan ez dadin, eta dauden hutsuneak gidoiekin beteko dira. Ez da laburdurarik erabiliko (NANa izan ezik), eta ez da zirriborrorik edo orbanik egingo. Berehala antzematen diren hutsegiteetan, HAU ESAN NAHI DUT jarriko da tartekatuta, eta, ondoren, adierazpen zuzena idatziko da. Gerora atzematen direnak beste eginbide batean idatzita jasoko dira. Gaur egun, baliabide informatikoek akats gehienak berehala zuzentzeko aukera ematen dute. Egiten diren eginbide guztiak haietan parte hartu dutenek sinatuko dituzte, eta horien filiazioa ere jasoko da. Norbaitek ezezkoa ematen badu, jaso egingo da egitate hori eta horren arrazoia emango da. Egiten den jarduketa bakoitzeko eginbide bat idatziko da, ordena kronologikoan, eta haietako bakoitzean tokia, eguna eta ordua zehaztuko da.

Atestatuak atal hauek izango ditu:

- Hasteko eginbidea:

    - Atestatua eginbide batekin hasiko da, eta hor jasoko dira abiarazteko arrazoiak, esku hartzen duten agenteak eta nola izan den istripuaren edo delituaren berri. Agindu batek edo salaketa batek eragindakoa izan bada, dokumentu hori edo haren transkripzioa jasoko da.

- Ikertzeko eta izapidetzeko eginbideak:

    - Gertakarien lekura joatea eta begi-ikuskapena egitea: hor jasoko dira zer egoera zegoen iritsi zirenean ibilgailuen kokapenari dagokionez, biktimen egoera zein den, laguntza-zentrora eraman diren, hartutako neurriak eta egindako krokisa egin, gorpuak altxatzea, autopsiara joatea, taldeko identifikazio-saioa, argazki bidezko azterketa edo objektuena, eta begi-ikuskapenetik eratorritako beste datu batzuk.

    - Azterketa medikoak eta alkoholemia-probak, estupefazienteenak edo bestelako drogenak; agenteek gidariaren/egilearen inguruabar psikofisikoak behatzeko egindako testa; odola ateratzeko eta analisi biokimikoa egiteko testa; analisien emaitzak poliziari entregatzeko baimena.

    -Identifikaziokoak: ibilgailuena eta haien kalteena, gidariena eta bidaiariena, gorpuena, egileena, begi-lekukoena.

    -Ibilgailua ibilgetu eta/edo gordailuan uztekoa, eta neurri hori altxatzekoa.

- Auto judizialekin lotutakoak: atxilotzeko manamendu judizialaren eskaera, sartzeko eta erregistratzeko manamendu judizialaren eskaera, sarrera- eta erregistro-akta, telefono-entzuketa egiteko edo telefonoa kontrolatzeko manamendu judizialaren eskaera, manamendu hori zabaltzea edo baliogabetzea

- Atxiloketarekin lotutakoak: atxiloketa eta eskubideei buruzko informazioa; atxilotuaren eskubideak baliatzea; agintaritza judizialari jakinaraztea; atxilotuari abokatu-laguntza eskatzea; berak nahi duen pertsonari atxiloketaren berri ematea; mediku-laguntza; aurrekariak; gorputz-miaketa; atxilotua aske uztea; *habeas corpus* eskatzea.

-Filiazio-jarduketak egitea; zitazioa egitea.

-Atxilotuen edo inkulpatuen deklarazioak; atestatuan parte hartu duten lekukoak, perituak, salatzaileak eta poliziak. Bakoitza bere aldetik hartuta.

- Istripuaren edo delituaren arrazoi posibleei buruzko ondorioak, bildutako datuen arabera.

Polizia judizialak epaiketa azkarretan egiten dituen ikerketa-eginbideak badira:

a) Delitugileekin eta erantzule diren hirugarren zibilekin zerikusia dutenak:

- Guardiako epaitegiaren esku jartzea, abokatuarekin joateko aukeraren berri ematen zaiola, edo ofiziozko bat izendatzea.

- Atxilotu ez dituzten akusatuen guardiako epaitegirako zitazioa.

- Kaltetutako ondasunen aseguru-etxeei egun eta ordu bererako zitazioa egitea, nor diren jakiten denean.

b) Kaltedun, lekuko eta perituekin zerikusia dutenak:

- Guardiako epaitegian zitazioa egitea kaltedunei eta lekukoei. Atestatuan parte hartzen duten segurtasun-indar eta -kidegoetako kideei ez zaie zitaziorik egingo, baldin eta haien deklarazioa atestatuan jasota badago.

- Peritu baten presentzia eskatuko dute, guardiako epaitegiaren aurrean txostena egin dezan, epaitegira bidali ezin diren objektuen tasazioari buruz.

c) Osasun-txostenak, estupefazienteen analisiak eta alkoholemiak:

-Txosten fakultatiboak eskatuko dituzte eta/edo auzitegiko medikuaren presentzia (osasun-laguntzako txostena), eta bertan egotea eskatuko da, baldin eta aztertuko den pertsona ezin bada guardiako epaitegira joan prozedurak irauten duen epearen barruan.

- Atzemandako substantziak dagokien laborategira bidaliko dira, eta laborategi horrek guardiako epaitegira bidaliko du analisien emaitza, biderik azkarrena erabilita, eta, nolanahi ere, zitazioen eguna eta ordua baino lehen. Berdin jokatuko da odol-analisiekin eta antzekoekin. Alkoholemia-kontroletarako, bide-segurtasunari buruzko legerian ezarritakoa beteko da.

- Amaierako eginbideak:

- Amaitzekoak eta bidaltzekoak. Hor adieraziko dira hartzailea, atestatuaren folio-kopurua eta epaitegian gordailututako efektuak eta frogak.

Atestatua epaitegian entregatuko da ahalik eta eperik laburrenean, hogeita lau ordu baino gutxiagoan, bi kopiatan. Kopia bat epaitegian geratuko da, eta bestea zigilatu eta unitatean gordeko da, artxiboko sarrera-erregistroarekin.

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	Aurreko serieak	
2.3.2	Beheragoko serieak	
2.3.3	Lotutako serieak	- Gorabeheren parteak / Txostenak
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	- Atestatuen erregistro-liburua - Poliziaren memoriak

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Bai
3.2	Legezkoa/juridikoa	Bai
3.3	Zerga-alorrekoa	Ez
3.4	Informatiboa	Bai
3.5	Historikoa	Bai.

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	Betirako kontserbatuko dira 5.000 biztanletik beherako herrietan.
Guztiz ezabatzea	5.000 biztanletik gorako herrietan, atestatua egin zenetik 10 urtera.
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	5.000 biztanletik gorako udalerrietan, 2 eta 7 zenbakiarekin amaitutako urteetan idatzitako atestatuak gordeko dira (Arabako udalerriak), 0 eta 5 zenbakiarekin amaitutako urteetan idatzitakoak (Bizkaiko udalerriak) eta 1 eta 6 zenbakiarekin amaitutako urteetan idatzitakoak (Gipuzkoako udalerriak). Serieko bilketa-materiala dago atestatuen erregistro-liburuetan eta urteko memorietan.
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Bai. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (kontsolidatua) 37. artikuluaren arabera eta Gardentasunari buruzko 19/2013

5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	Artxibo bakoitzaren erregelamenduaren araberakoa izango da
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	ABYC Soluciones Documentales SL
Landa-lana egin den artxiboa/k	Elgoibarko Udaleko artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	1981-
Azterketaren data	2017ko urria
Azterketaren berrikuste-data	2022/06/09
DOBAUBAren onarpen-data	2018/01/22 ; 2022/06/13
EHAAko argitaratze-data	2018/02/08 ; 2023/03/17
Oharrak	

Eranskina

DIGITALIZATUTAKO ESPEDIENTEA (Elgoibarko Udaleko artxiboa)

Esp. zk.: 2014MS350001

- Azala: ustezko mehatxu eta erasoengatik bideratutako atestatua
- Aurkibidea
- Elgoibarko Udaltzaingoaren bulegoetan egindako salaketaren akta
- Larrialdietako parte judiziala
- Ekintzak jakinarazteko eginbidea Elgoibarko Udaltzaingoaren bulegoetan
- Lekukoaren agerraldia Elgoibarko Udaltzaingoaren bulegoetan
- Salatuaren filiazio-eginbidea
- Gertakarien deskribapenaren eginbidea

Esp. zk.: 2014MIS20003

- Azala: zirkulazio-istripuagatik bideratutako atestatua
- Aurkibidea
- “A” ibilgailua identifikatzeko eginbidea
- “B” ibilgailua identifikatzeko eginbidea
- “C” ibilgailua identifikatzeko eginbidea
- “A” ibilgailuko gidaria identifikatzeko eginbidea

- “B” ibilgailuko gidaria identifikatzeko eginbidea
- “C” ibilgailuko gidaria eta bidaiariak identifikatzeko eginbidea
- “A” ibilgailuko gidariaren istripuagatiko deklarazioaren akta
- “A” ibilgailuko gidariari prozedura-baldintzei buruzko informazioa emateko eginbideak
- “B” ibilgailuko gidariaren istripuagatiko deklarazioaren akta
- “B” ibilgailuko gidariari prozedura-baldintzei buruzko informazioa emateko eginbideak
- “B” ibilgailuko gidariaren txosten medikoa
- “C” ibilgailuko gidariaren istripuagatiko deklarazioaren akta
- “C” ibilgailuko gidariari prozedura-baldintzei buruzko informazioa emateko eginbideak
- 1. bidearen ezaugarriak
- 2. bidearen ezaugarriak
- Gertakarien deskribapenaren eginbidea
- Bilakaerari buruzko eta kausa posibleei buruzko eginbidea
- Argazki-txostena
- Krokisa

Esp. zk.: 2013MIS70002
- Azala: pertsona bat harrapatzeagatiko zirkulazio-istripuagatik bideratutako atestatua
- Aurkibidea
- Gertakarien deskribapenaren eginbidea
- Gidariaren deklarazioaren akta
- Lekukoaren deklarazioaren akta (harrapaketaren ustezko biktimaren senidea)
- Lekukoaren deklarazioaren akta
- Ibilgailua identifikatzeko eginbidea
- Gidaria identifikatzeko eginbidea
- Harrapaketaren ustezko biktima identifikatzeko eginbidea
- Lekukoa identifikatzeko eginbidea (harrapaketaren ustezko biktimaren senidea)
- Lekukoa identifikatzeko eginbidea
- Ibilgailuaren gidariari prozedura-baldintzei buruzko informazioa emateko eginbideak
- Lekukoaren prozedura-baldintzei buruzko informazio-eginbidea (harrapaketaren ustezko biktima izan den adingabearen senidea)
- 1. bidearen ezaugarriak
- 2. bidearen ezaugarriak
-Bilakaerari buruzko eta kausa posibleei buruzko eginbidea
- 1. argazki-txostena
- 2. argazki-txostena
- Krokisa
- Oinezkoaren txosten medikoa
- Eginbideak amaitzeko eta epaitegira bidaltzeko eginbidea